



■ MUGIKORTASUN ASTEA

Patinetan ibilaldia bihar, herri osoan zehar

Mugikortasun asteak azkeneko ekitaldia izango du bihar. Goizeko 09:30etan patinak jantzi, eta goiz osoa emango dute Hernaniko kaleetan barrena. Bukaeran, hamaiketako izango da Karabelen.

PATINAK jantzi, kaskoa lotu eta Karabelera hurbildu. Hori-
xe besterik ez dute egin behar,
ibilaldi polit batez gozatu nahi
dutenek. Mugikortasun Astea-
ren azkeneko ekitaldia izango
da biharkoa: patinetan ibilal-
dia, 09:30etan Karabeletik
abiatuta. 15 minutu lehenago
azaltzea nahikoa izango da,
parte hartzeko.

Ginkana, Zubiondon eta Karabelen

Hernaniko kaleetan barrena
egingo dute ibilbidea. Kara-
beletik atera, eta Landare
paretik Zubiondo poligonora
iritsiko dira. Ibaiondoko zubia
zeharkatu, eta Urumearen
pareko bidegorria hartuko
dute, Akarregi inguruetara iris-
teko. Bidegorritik bueltatuko
dira Zubiondo poligonora, eta
ginkana egingo dute bertan.

Ondoren, Karabelerainoko
bidea osatu, eta beste ginkana
bat izango dute zain. Eta baita
hamaiketako ere. Izan ere,
Karabel Eguna ere ospatuko,
bihar bertan, eta jan-edana
eskainiko die auzo elkarteak,
parte hartzen duten guztiei.

Gurpil gaineko asteari itxiera
Hernanin Patinez ekintza-
rekin, itxiera emango zaio
Mugikortasun Asteari. Irailak
13an hasi zuten, bigarren
eskuko bizikleten azokarekin.
Eta ordutik, gurpilen gainean
ibili dira: aurreko ostiralean,
kirol egokitua izan zuten,
ezinduen lekuan jartzeko; eta
igandean, bizikleta ibilbidea
osatu zuten Hernanin.

Helburua da mugikortasun
iraunkorra sustatzea, eta
erakustea posible dela beste
modu batez mugitzea. ■



Iaz bezala, ginkana egingo dute Karabelen, ibilbidea osatu ondoren.

■ ATLETISMOA

Eva Esnaola Spartathlon lasterketan, bihar

246 kilometroko proban hartuko du parte atleta hernaniarrak, Greziako Atenas hirian hasita. Sasoiko iritsiko da Esnaola, ultrafondoko proba garrantzitsura.

SPARTATHLON proba garran-
tzitsuan ariko da Eva Esnaola
bihar. 246 kilometroko bide
luzea izango du aurretik, Aten-
as eta Esparta lotuko ditu-
ena. Filipides egun bakarrean
osatu zuen ibilbidea, k.a. 490
urtean, greziarren eta pertsia-
rren arteko gerrara joateko.
Esnaolak, berriz, 36 ordu
baino gutxiagotan osatu
beharko du, hori baita
lasterketaren topea.

Sasoi onenean, proba
gogorrari aurre egiteko
Sasoi onean iritsiko da,
behintzat, atleta hernaniarra,
proba luze eta gogorrera. Joan
den astean, garaipena lortu
zuen Villeneuve d'Oroneko
ultrafondoan, eta Estatuko
errekorra lortu zuen gainera,
ia 127 kilometro eginda.

Beraz, prestaketa bide
onetik eraman du, eta
konfiantzaz dago, lasterketa

denbora mugaren barruan
bukatzeko: «erori gabe jaistea
lortzen badut, bukatuko dut»,
adierazi zion Kronikari.

«Mendiak eta gauak beldurra ematen didate»

Goizeko 07:00etan abiatuko
dira parte hartzaileak, Atena-
setik, eta gauaz ere korrika
egin beharko dute. Hori-
xe du kezka haundiena Esnaolak:
«hasi eta 140 kilometroa,

mendia dago, eta gainera
gauaz. Beldurra ematen dit
horrek, ordu horietan
estabilitatea galtzen duzu».

Helburua, noski, bukatzea
izango du: «horrekin nahikoa
daukat». Eginak dauzka 100
kilometroko probak, eta 214
ere egin ditu, pistan. Baina
halako probetan, aurreneko
esperientzia izango du: «xuabe
hastea da sekretua; jende asko
erretiratzen da». ■

■ HAURDUNALDIA

Tailerrean izen ematea luzatuta, urriak 1era arte

Haurdunaldia bizi eta parteka-
tzeko tailerra antolatu du
Berdintasun Sailak. Saioak
asteazkenetan izango dira,
urriaren 8tik otsailaren 18ra,
Biterin. Izena emateko epea
luzatu egin dute, urriak 1era
arte: irantzu-j@hernani.net,
maialen-a@hernani.net, 943
33 70 17, edo Plaza
Feminista. Prezioa: 30 euro. ■

■ BERTSO ESKOLA

Bertso Eskolan izen ematea gaur

Aurten Bertso Eskolan ikasi
nahi dutenek, gaur dute apun-
tatzeko eguna. Biterin egongo
dira, 17:00etatik aurrera.
Klaseak ostiralean izango dira,
datorren astetik, eta 9 urte-
tik gorako edonor apuntatu daite-
ke. Informazio gehiago, gaur
Biterira hurbilduta. ■

■ LANGILE IKASTOLA

Eskola kiroleko lan poltsa zabalik, gaur arte

Langile Ikastolak zabaldu egin
du eskola kiroleko begiraleen
lan poltsa. Interesa dutenek,
gaur dute apuntatzeko azken
eguna: www.langile.com. ■

■ PRESO ETA IHESLARIAK

Kontzentrazioa, Plazan

Hernaniko preso eta iheslarien
senideek kontzentrazioa deitu
dute gaur, Plazan, 20:00etan.
Lema da: *Gaixotasun larriak*
dituzten presoek etxera. Seni-
deek dei egin diete herritarrei
animatu eta parte hartzera. ■

■ DIRU LAGUNTZAK

Kiroleko diru laguntzak eskatzeko momentua, orain

Orain da momentua, kirol jar-
duerarako diru laguntzak
eskatzeko. Urriaren 27ra bitar-
tean egin daiteke. Eskaera egi-
teko orriak, Hernaniko Udalaren
bulegoetan jaso daitezke. ■

- Bisita gidatuak
- Ostiraletik Igandera, 11:00etatik aurrera, pintxoak, razioak eta menuak
- Jangelan edo terrazan

sagardo  **gunea**

Osiñaga auzoa, 10 Hernani
www.iparragirre.com 943 55 03 28 // 943 33 73 70

Allianz 

ASEGURUAK

- bizitza -
- bizi-erretiroak -
- bizi-erretiroak -
- bizi-erretiroak -
- bizi-erretiroak -
- bizi-erretiroak -
- bizi-erretiroak -
- bizi-erretiroak -
- bizi-erretiroak -
- bizi-erretiroak -

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 28
Faxa: 943 33 57 71

mikel armendariz

proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

BigMat
Ariceta, s.a.

ALMAZEN MULTIESPEZIALISTA

HERNANI
Especializazio, Eraikuntza eta Iturgintza
almazena:
Ibaiondo poligonora, 30
Especializazio telf.: 943 336 186
Eraikuntza telf.: 943 550 655
Iturgintza telf.: 943 552 094

DONOSTIA
Especializazio Balneario, 10
Telf.: 943 451 111

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
• AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
• ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ FARMAZIAK • Egunez: Castilla Urbietan 7 943 552941 • Gaez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURALDIA GAUR Giro eguzkitsua izango dugu, laino gutxirekin. Haizeak hegokialdetik joko du, eta temperatura maximoak gora egingo du. Min.12° / Max.23°

BIHAR Udako itxura hartuko du eguraldiak. Eguzkia izango da nagusi, oso laino gutxirekin, eta temperatura igo egingo da. Min.14° / Max.26°

(euskalmet)

ATEZ ATEKOA

Errefusaren kuboak banatuko dituzte asteburu honetan

Errefusa kuboetan aterako da urriaren 4tik aurrera, poltsetan beharrean. Gainera, posible izango da organikoaren kuboari poltsa jartzea.

ATEZ ATEKOAK bi aldaketa izango ditu hondakinen bilketan, urriaren 4tik aurrera. Batetik, errefusa kuboetan aterako da aurrerantzean, poltsetan beharrean. Eta bestetik, posible izango da organikoaren kuboari poltsa edo paperezko zorroa jartzea.

Errefusa ateratzeko kuboak, asteburu honetan zehar banatuko ditu Udalak. Kuboak grisak izango dira, 7 litrokoak. Bakoitzaren gantxoetan jarriko dituzte, larunbatean edo igandean, etxera eramateko. Kubo hori erabili beharko dute herritarrek, urriaren 4tik aurrera, errefusa ateratzeko.

Bakoitzaren gantxoetan jarriko dituzte errefusaren kuboak, asteburuan zehar, etxera eramateko.

Aldaketa dator, poltsek egoera deserosoak eta arriskutsuak ekarri dituztelako, hondakin biltzaileentzat: lurrean uztea zintzilikatu ordeztu, kristal zatiak edukitzea...

Organikoarekin, berdin jarraitzeko bultzada Bigarren aldaketa, organikoa-

ren kuboan izango da. Urriaren 4tik aurrera, posible izango da poltsa edo paperezko zorro konpostagarria jartzea. Izan ere, zenbait eskaera jaso dituzte herritarren aldetik, aukera hori emateko.

Hala ere, Udalak apustua da oraindik ere, kuboak poltsarik gabe ateratzea. Horregatik, herritarrak bultzatu nahi dituzte berdin jarraitzea, eta poltsa edo zorrorik ez jartzera: «konpostaren kalitatea hobea da horrela».

Edozein kasutan, poltsak eta zorroak ez dira onartuko, auzo-konposta egiten den guneean. ||

OSIÑAGA

Egun pasa ederra, Lizarra aldean

Osiñagako auzo elkarteak antolatuta, egun pasa egin zuten Lizarra aldean, udari bukaera emateko. 67 lagun elkartu ziren. Urbanen hamaiketako egin, eta Balcon de Pilatos inguruak ikusi zituzten (argazkian). Hortik Lizarrara joan ziren, Aroa upategian bazkaldu, eta Gares bisitatu zuten arratsaldean. Egun ederra pasata, Osiñagara bueltatu ziren. ||



JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Alkoholaren kontsumoa gaez, bide publikoan

Taberna eta pub inguruetako jende pilaketak, eskatu eta gero kalean kontsumituz, eragozpen ugari sortzen dizkiete bizilagunei, deskanstasuten ari direla. Dibertsioa eta atsedenen arteko oreka hautsi egiten da, eta ez deskanstasuten dutenen aldetik.

Arazoa ez da horrenbeste musikarena, baizik eta jende zaratatsu, eskandaloso eta errespetu gabekoarena. Zarata ez dago soberan, errespetua faltan baizik. Heziketa hobea, udan eta txotx kanpainarekin, oihukatzeraz eta gaupasa egitera ohitu baikara, ondoko etxean

inork lo egingo ez balu bezala, benetan dibertigarria dena guri bakarrik okurrituko balitzaigu bezala, eta kale guztiari jakinarazi.

Konponbidea oso zaila da, beharbada soilik debekua da bidea, denei eta modu askotara eragingo digutenak. Printzipioz, ez dio axola zein den zarataren iturria, taberna edo kanpoko jendea den; kontua da, zona horretan zarataren mugak gainditzen direla, 55 dezibeliokoa egunez eta 45ekoak gaez.

Gehiengo kontua ere ez da. Gehiengoak kontutan hartzen dira errespetuaren barruan, tabernariei, bizilagunei, araei... Soinu Haundiko

Tokia izendatzeak, gehiegizko zarata murrizteko neurriak hartzea dakar. Horien artean daude: ordutegiak murriztea, polizia zaintza areagotzea, lizentzia eta baimen gehiago ez ematea, lokaletan soinupotentzia mugatzea, edo gauean aisialdirako alternatibak sustatzea.

Konpontzen ez bada, urrezko arrautzen oiloa arriskuan egongo da, lizentziak denbora baterako bertan behera uztera iristeraino.

Errespetu pixka bat gehiagorekin, denontzako dago lekua. Hernani Bizirik, kalean eta gabean ixilik.

Ion Azpiazu Goñi

DONOSTIAKO ZINEMALDIA

AMAIA GARCIA



Neska magikoa

Carlos Vermut zuzendari madrildarraren pelikula izan da zinemaldiko ezusteko atsegina. *Magical Girl* filma hiru pertsonen istorioen nahasketa da. Bakoitzaren erabakiek besteen bizitzan eragina izango dute.

Jose Sacristán, Bárbara Lennie eta Luis Bermejo aktore-

ak dira pelikula honetako protagonistak. Pelikulak bakoitzaren alde ilunena erakutsiko digu, gizakia zein puntutara iritsi daitekeen erakusten du. Momentuz, Sail Ofizialeko pelikularik onena dela esan daiteke; ikusi egin behar zer iritzi duten epaimahaiko kideek. ●

AMIANTOA ASVIAMIE

Beste hildako bat Hernanin amiantoagatik

Amiantoaren eraginez, beste pertsona bat hil zen Hernanin asteartean, ASVIAMIEk jakinarazi duenez, Euskadiko Amiantoaren Biktimen Elkartea. Azaldu dute, aurten hiltzen den 15garrena dela Euskadin. Horregatik, deia egin die indar parlamentarioei eta enpresa haundiei, biktimentzako Konpentsazio Fondo bat sortzeko. ||

ONGINTZA

Nerabeen gurasoentzat ikastaroak

Nerabeen gurasoentzat ikastaroa eskainiko du Hernaniko Osasun eta Gizarte zerbitzuak, urrian hasita. Bost saio izango dira, asteazketan: urriak 8, 15, 22 eta 29, eta azaroak 4. Ikastaroa Biterin emango du Jose Maria Izeta psikologoak, 19:00etatik 20:30etara. Apuntatzeko, deitu Ongintzara: 943 55 78 54 (Ana Goñi). ||

BOLEIBOLA

Boleibol taldea ateratzeko deialdia

Boleibolean aritu nahi dutenek, aukera dute aurten ere. 2003tik aurrera jaiotakoei, deialdia egin die Hernani KEK, taldea osatzeko, nesketan eta mutiletan. Informazio gehiago kiroldegian, asteazken eta ostiraletan, 18:00etatik aurrera. ||

MASUSTA EKODENDA

Plazak libre yogan eta meditazioa hastear

Masusta Ekodendan, yoga eta meditazio ikastaroak emango dituzte, urrian ere. Yogan, bi ordutegi berri eskainiko dituzte: astelehen goizetan, 11:00etatik 12:30etara; eta ostegun arratsaldetan, 17:00etatik, 18:30etara. Gainera, plaza batzuk libre daude oraindik, astelehen arratsaldeko saioetarako, 17:45etako eta 19:30etako saioetarako. Eta urriak 1ean, meditazio saioei emango diete hasiera. Asteazketan izango dira saioak, 20:15-21:45. ||

MOLOTOFF IRRATIA

Bilera irekia bihar, denboraldi berriaz

Denboraldi berria dela eta, bilera irekia egingo du Molotoff irratiak, bihar arratsaldean. Irratian parte hartu nahi duen edonor animatzen dute bilerara: irratiaren egoitzan (Sagastialde 16, behean), 16:00etan. Edozein zalantza argitzeko idatzi: molotoff@outlook.es helbide elektronikora. ||

IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko erdigunean pisua salgai. 2 gela, sala, sukaldea eta komuna. Patio irekiera eta oso argitsua. Igogailua eta fatxada berria. Sartzeko moduan, amueblatua. Deitu: 630 227 630

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)